



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 15a

45. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuaren % 0,7 arautzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko neurriak har ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean emandako txostena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan, oinezkoak segurtasunez ibili ahal izan daitezen Mendillorri, Burlata eta Sarriguren artean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako eta Tuterako eskualdeetan ere aplikada dadin minbizia izatearen susmoa dagoenerako protokoloa, gaur egun Iruñerrian aplikatzen dena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrazter dezan laguntza medikoko probak eta kontsultak egiteko garraio-zerbitzu kolektibo eta egokitua, Lizarra eta Tutera soilik hartzen baititu. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-enplegu babestua prestazio bermatutzat har dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen erregelamenduak eta aginduak gara ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-sistemako zailtasun bereziko lanpostuak katalogatzeko irizpideak presta ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola garraiorako eta egoitzarako laguntzeta-  
rako kontusail bat sor dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Tuñón jaunak Senatuan izandako jarrera politikoa gai-  
tzezen du, eta Senatuko Mahaiaren erabakiak bete ditzan premiatzen du. Mozioa erretiratzea (22. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze  
lehiaketa bidez betetzeko (23. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2008ko abenduaren 31koa. (27. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzekoa.**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**1. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**1. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**  
**DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1 artikulua kentzeko zuzenketa.

Artikuluko testuan aldaketa bat egitea proposatzen dugu. Honela geratuko da 1. artikulua:

“1. artikulua. PFEZaren aitortpena egitean ‘gizarte-intereseko beste xede batzuk’ hautatu duten zergadunen kuota osoen baturari % 0,7 aplikatzen heldu den zenbatekoa xede-izaerako funts bereki bat eratzeke erabiliko da, ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa’ izenekoa.”

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-eztabaidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

**2. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelaniazko testuko 1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Euskarazko testuan ez du eraginik. Gaztelaniaz hauxe da testu berria:

«Artículo 1. Con la cantidad resultante de la aplicación del 0,7%, a la suma de las cuotas íntegras de los y las contribuyentes del IRPF que hayan optado en la asignación tributaria del impuesto por “otros fines de interés social”, se configura un fondo con sustantividad propia de carácter finalista, denominado “Fondo 0,7% de otros fines de interés social».

Zioak: Hizkera ez sexista erabiltzea.

**3. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**  
**DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“zenbatekoarekin” hitzetik hasi eta artikuluen bukaerara artekoa honekin ordeztzea proposatzen dugu: “zenbatekoak berariazko atxikipena izanen duen kontusail bat osatuko du urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa’ izenekoa.”

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-eztabaidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

**4. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

1. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

1. artikuluari azken lerrokada bat gehitzea proposatzen da.

«2. Nafarroako Gobernuak urte bakoitzeko Aurrekontuei buruzko Foru Legearen zirriborroan berariazko kontusail bat sartuko du “% 0,7 funtsa, PFEZko ‘Gizarte-intereseko beste xede batzuk’ laukitotik heldu dena” izenarekin».

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da funtsak urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako kontusail bat izatea.

**2. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****5. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtseko” dirua hitzen ordeztuz, “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” kontusaileko dirua hitzak jartzea.

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-erabakidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

**6. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. artikuluko ondoko testua ordeztzea proposatzen da:

“Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtseko’ dirua soilik erabili ahalko da Nafarroako GKE-ek eta elkarteek laguntza-xedeetara, nazioarteko garapenerako lankidetzara, prestazio-

rik gabeko langabetuei laguntzera eta Autonomia Pertsonalari buruzko Legea garatu eta babesteko jardueretara –estatuaren ekarpenen bidez finantzatzen ez direnetara– bideratutako lana finantzatzera”

Horren ordeztuz, testu hau jartzea proposatzen dugu:

2. artikulua.

“Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtseko’ aipatu dirua soilik erabili ahalko da Nafarroako Gobernuak behar den erregistroan izena emanda dauden eta Nafarroan lehentasunezkoztat jotzen diren interes orokorreko gizarte-premiei erantzuteko, nazioarteko laguntzarako eta ingurumena hobetzeko programak garatzen dituzten elkarte eta GKE-en laguntza-xedeetarako.”

Zioak: Gure ustez, proposaturiko testuak hobeki zehazten ditu gizarte-lanak egiten dituzten eta funtseko dirua jaso dezaketen elkarte eta GKE-en aukerak.

**7. ZUZENKETA****NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa; honela geldituko da testua:

“2. artikulua. ‘Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtseko’ aipatu dirua soilik erabili ahalko da Nafarroako Gobernuak behar den erregistroan izena emanda dauden eta Nafarroan lehentasunezkoztat jotzen diren interes orokorreko gizarte-premiei erantzuteko, nazioarteko laguntzarako eta ingurumena hobetzeko programak garatzen dituzten GKE-en laguntza-xedeetarako. Horrenbestez, funts honen kudeaketatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, alderdi politikoak, unibertsitateak, sozietate zibilak, lanbide elkargoak eta aurrekoen antzerako berariazko xede eta izaera duten bestelako entitateak”

Zioak: Gure ustez, argi utzi behar da funts hori soilik eta erabat GKE-ek kudeatzekoa dela.

**3. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****8. ZUZENKETA****NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa; honela geldituko da testua:

Hirugarren artikulua. “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” zehazki, aurreko artikuluan emandako irizpideen arabera banatuko dira lehentasunez, ondoko taldeekin bat:

1. Administrazio publikoek betetzen ez dituzten interes orokorreko premia sozialetarako laguntza; hala nola ondokoei zuzendutako programa eta proiektuetarako: drogazaleak, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo horretarako arriskua duten pertsonak, gizarte-egoera zailean dauden adingabeak, generoko indarkeriaren biktima diren emakumeak, gutxiengo etnikoak, presoak, preso ohiak eta pasadizokoak. Halaber, zaharrei eta ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialak dituzten pertsonen zuzendutakoak.

2. Nazioarteko garapenerako lankidetzak, garapen bidean dauden herrialdeetako populazioen aldekoa.

3. Natur ingurunea eta biodibertsitatea babesteko programak, natur baliabideen erabilera iraunkorra eta kutsadurari eta klima-aldaketari aurrea hartzea.

Zioak: Pobreziaren Kontrako Plataformak adierazitakoa jasota, gure ustez zuzenketa honetan jasotakoak hobeki jasotzen ditu programen ezauzgarriak eta lehentasun sozialak.

## 9. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA** PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” hitzen ordez, “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” kontusaila” hitzak jartzea.

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-eztabaidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

## 10. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA** PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialak dituztenak eta lanerako ezgaituta daudenak ere,

baldin eta laugarren multzoan jasota ez badaude” hitzen ordez, “ eta menpekotasuna duten pertsonak ere” hitzak jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-eztabaidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

## 11. ZUZENKETA

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA** FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da.

“1. Beharrizan-egoeren aurrean egiten diren gizarte-elkartasuneko jarduerak, hala nola horrelako egoerentarako proiektuak eta programak, xede dituztenak drogazaleak, gizarteak baztertutakoak, guraso bakarreko familiak, Espainiako naziokotasuna duten adingabeak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, tratatu txarrak jaso dituzten emakumeak, gutxiengo etnikoak, presoak, preso ohiak eta pasadizokoak; bai eta zaharrak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialak dituztenak eta lanerako ezgaituta daudenak ere, baldin eta laugarren multzoan jasota ez badaude”.

Testuaren ordez, honako testua jartzea proposatzen dugu:

“1. Administrazio publikoek betetzen ez dituzten interes orokorreko premia sozialetarako laguntza; hala nola ondokoei zuzendutako programa eta proiektuetarako: drogazaleak, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo horretarako arriskua duten pertsonak, gizarte-egoera zailean dauden adingabeak, generoko indarkeriaren biktima diren emakumeak, gutxiengo etnikoak, presoak, preso ohiak eta pasadizokoak. Halaber, zaharrei eta ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialak dituzten pertsonen zuzendutakoak”.

Zioak: Proposatutako testua egokiagoa da lagundu beharreko kolektiboetarako dagokienez.

**12. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

3. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, "bestelako gizarte-xedeetarako funtsa" izeneko sorreran biltzen zuen konzeptua aldarazten du.

Langabetuen premia ekonomikoari ez zaie erantzun behar elkarteek eta GKE-ek arlo zehatz batzuetan garatu behar dituzten jarduketako programetarako diren funts batzuekin. Administrazioak bete behar ditu gizarte-premia horiek Nafarroako Aurrekontu Orokorren bitartez.

**13. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko 3. idatz-zatia ordezteko proposatzen da:

"3. Garapenerako nazioarteko lankidetzak, herrialde azpigaratuak biztanle behartsuen aldekoa, bereziki gatazka belikoa bizi duten edo pairatu duten herrialdeetan edo hondamendi naturalek larriki kaltetutako herrialdeen garapenerako lankidetzak."

Testu horren ordezkari, hurrengo 2. idatz-zatia jarriko da:

"2. Nazioarteko garapenerako lankidetzak, garapen bidean dauden herrialdeetako populazioen aldekoa."

Zioak: Gure ustez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak, Lankidetzak Kontseiluak eta Ingurumen Kontseiluak izan behar dute ados jarri eta nazioarteko laguntzarako lehentasunak ezartzen dituztenak, premia handienak dituzten herrialdeentzat.

**14. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

3. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, "bestelako gizarte-xedeetarako funtsa" izeneko sorreran biltzen zuen konzeptua aldarazten du.

Autonomia pertsonala sustatzeko Legeak bere lehen proposatuak eta behar adinakoak eduki behar ditu Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, zuzen garatu ahal izateko.

**4. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****15. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

4. artikulua aldatzea proposatzen da. Honako testua proposatzen dugu:

"4 artikulua.

'Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa' honela banatuko da: % 60 lehenengo talderako; % 25 bigarren talderako, eta % 15 hirugarren talderako'.

Zioak: Gure ustez, proposatzen diren hiru banaketa-taldeak zuzen egokitzen zaizkio funtsaren gizarte-interesari.

**16. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

{>"Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa' honela banatuko da' hitzen ordezkari, "Berriazko kontusaileko 'Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa' honela banatuko da" hitzak jartzea.

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-erabakidaren ondoren, zenbait konzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

**17. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“% 25 1., 2. eta 3. jarduera-multzoetako bakoitzari, % 20 4. multzoari eta % 5 5. multzoari” hitzen ordeztu, honako testua jartzea proposatzen dugu: 1. multzoari % 35; 3. multzoari % 30; 2. eta 4. multzoari % 15, eta 5. multzoari % 5”

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-eztabaidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

**18. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

4. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

4. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzea. Ondoko testua izanen du:

“2. Multzo bakoitzaren barreneko lehentasunak urteko deialdi bakoitzean zehaztuko dira, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua, Lankidetzaren Kontseilua eta Ingurumen Kontseilua ados jarrita”

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da multzo bakoitzarentzako dirulaguntzen lehentasunak urtero adostasun bidez ezartzea.

**19. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4.bis) artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. bis) artikulua. Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, ‘Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsaren’ bidez eta foru lege honetan zehazturiko irizpideen arabera finantzatu beharreko gizarte eta ingurumen programei esleituriko ehunekoen definizioa ebaluazio batzorde baten bitartez egiten da”

Zioak: Gure ustez, ehunekoen eta programen definizioa propio sorturiko batzorde batek egin behar ditu, Estatuan egiten den bezala, deialdiak dinamikoak izateko eta errealitateari eta unean

uneko premiei egokitzeko, urtero foru lege hau aldatzen ibili behar izan gabe.

**5. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****20. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikulua aldatzea proposatzen dugu: “Bost” jartzen duen tokian “hiru” jartzea nahi dugu.

Zioak: Gure ustez ez da beharrezkoa funtsa banatzeko hiru talde baino gehiago egotea.

**21. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa; honela geldituko da testua:

“5. artikulua. 3. artikuluan aipatutako ebaluazio batzordeak definituriko lehentasun sozialen arabera diruz laguntzen diren programak gizarte-programa desberdinetarako Foru Administrazioak aurreikusita duenaren osagarriak eta gehigarriak izanen dira”

Zioak: Testu argiagoa erabiltzea % 0,7ko tributu-asignazioaren izaera osagarria definitzeko.

**22. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

5. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

5. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzea. Ondoko testua izanen du:

“2. Erabilitako kopuruak independenteak izanen dira, eta ez dituzte kanpo utziko lehendik dauden deialdi publikoetan aipatutako kolektiboentzat dauden kopuruak”

Zioak: Gure ustez, funts honetatik jasotzen diren laguntzek ezin dituzte bestelako laguntzak baztertu.

**6. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**23. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da funtsak banatzeko multzoen kopurua handitzea.

**24. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa; honela geldituko da testua:

“6. artikulua. Edozer dela eta, funtsaren gerakin bat baldin badago, dirulaguntzetarako deialdia egiten da berriz ere, foru lege honetan ezarrirakoari jarraituz. Epe arrazoiengatik nahiz beste inguruabar batzuegatik beste deialdi hori egitea ezinezkoa baldin bada, gerakineko kopurua hurrengo ekitaldi fiskaleko % 0,7ko funtsari gehituko zaio”

Zioak: 2. zuzenketako zioetan adierazitakoarekin koherentziaz jokatu nahi dugu. Horrenbestez, proiekturik ez dagoelako nahiz beste edozein arrazoi dela medio sorturiko gerakina funtsetik beretik kudeatuko da, jada zehazturiko baldintzetan.

**25. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Artikulu bat, seigarrena, gehitzeko zuzenketa.

6. artikulua berri bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“6 artikulua.

GKE-ek eta irabazi asmorik gabeko entitateek behar adina proposamen egiten ez badute, edo aurkezturiko programa edo proposamenek helburuak lortzeko behar bestekoak ez badira edo behar diren baldintza teknikoak ez badituzte, deialdi gehiago egiten dira, harik eta ‘Gizarte-intereseko beste xede batzuk’ izeneko tributu-asignaziotik heldu den funtsa guztiz banatzen den arte”

Zioak: Gure ustez, ezinbestekoa da “Gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko asignazioaren funtsetik heldu den zenbatekoa guztiz banatzea definituriko xede soziala garatzen duten entitateen artean.

**7. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**26. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko testua beste testu honekin ordeztuta:

“7. artikulua.

Nafarroako Gobernuak, urte natural bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen, jarduketa-multzo bakoitzerako deialdiak egiten ditu.

Zioak: Gure ustez zehatzagoa da data finko eta jakin bat ezartzea.

**27. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluarik gehiketa egiteko zuzenketa.

“..aurrekontuen legeak indarra hartu ondoko...” hitzen ondoren, hau gehitzea: “edo aurreko aurrekontuak luzatutzat ematen diren egunetik, kasua bada.”

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-eztabaidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

**28. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluarik gehiketa egiteko zuzenketa.

“Deialdia egiten du” hitzen ondoren, honakoa gehitzea: “Gizarte Ongizateko, Garapenerako Lan-



kidetzako eta Ingurumeneko kontseiluek irizpena eman ondoren; irizpen horretan, Nafarroako Gobernuak ahal den adostasun handiena lortzea bilatuko du. Halaber, PFEZaren kanpainetan zehar, zergadunentzako behar adina informazio emanen da laukitxoak markatzeko dauden aukerei buruz, bai eta foru lege horren bidez finantzatzen diren programei buruz ere”

Zioak: Foru lege proposamen honen osotasunari buruz egin zen parlamentu-eztabaidaren ondoren, zenbait kontzeptu egokitu behar dira, eta doikuntza batzuk ere egin behar dira testuan, zuzenketa honetan adierazitakoa esate baterako.

### 8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### **29. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA** FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

8. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“8. artikulua.

Tributuen Administrazioak, PFEZari buruzko kanpainan zehar, informazioa emanen du dauden aukerei buruz eta laukitxo bakoitza markatuz gero funtsei emanen zaien erabilerari buruz, zergadunek beren aukerak argi ezagutu ditzaten eta libreki erabaki ahal izan dezaten”

Zioak: Beharrezkotzat jotzen dugu Tributu Administrazioak informazioa ematea gizarte-intereseko bestelako xedeetarako laukitxo markatze-tik heldu diren funtsen helmugari buruz.

### XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### **30. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA** FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, xedapen horrek indarririk ez du, 3. artikuluko 2. eta 4. idatz-zatiak kendu baitira.

#### **31. ZUZENKETA**

##### **NAFARROA BAI** PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: 6. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin koherenteak izatearren.

#### **32. ZUZENKETA**

##### **NAFARROA BAI** PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hirugarren xedapen gehigarria. Lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, 3 artikuluan aipatzen den Ebaluazio Batzordea eratuko da. Programei buruz nahiz GKE-ei buruz baloratuko diren irizpideak eta ehunekoak zehazteko organo eskuduna izanen da batzorde hori.

Nafarroako Gobernuak arautuko du aipatu batzordearen funtzionamendua eta zehaztuko du zer erakundek parte hartuko duten batzordean. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira, gutxienez ere, Nafarroako GKE-en Koordinadora, Pobreziaren Kontrako Sarea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak, Gizarte Gaietako Departamentuaren ordezkariak, eta Nafarroako Parlamentuan tokia duten parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkarte guztien ordezkariak.

Zioak: Garrantzitsua da GKE-en parte-hartze soziala zehaztea ehunekoak eta garatu beharreko programak definitzerakoan.

#### **33. ZUZENKETA**

##### **NAFARROA BAI** PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa.

“Laugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak, urte natural bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen, jarduketa-multzo bakoitzerako deialdiak eginen ditu”

Zioak: Pobreziaren kontrako Plataformaren ekarpenak jasota, gure ustez arintasuna eman behar zaie gisa horretako deialdiei.

XEDAPEN IRAGANKORRARI  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

**34. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarria aldatzeko zuzenketa.

“Xedapen iragankor bakarria Zergadunek 2009ko errentaren kanpainan ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetara’ bideratzen duten % 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoa, 2010ean, ‘Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa’ taxutzeko eta kudeatzeko aplikatuko da.”

Zioak: Hizkera ez sexista erabiltzea.”

**35. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen iragankorra. Hiru hileko epean, foru lege honetan aipatzen diren dirulaguntzak antolatzeko, izapidetzeko eta ebazteko berriazko erregelamendu bat garatuko da.

Zioak: Gure ustez, egungo proposamenak ez ditu behar diren neurri teknikoak biltzen onetsi nahi den legeko artikuluetan xedatutakoa gauzatzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da foru lege honek Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea deialdia berriazko araupetze baten bidez ebazteko.

ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

**36. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**  
**DE NAVARRA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko lehenbiziko lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Haren testua foru lege proposameneko informazio-edukiaren eta arautu nahi den egoera zehatzaren arabera egokitzea.

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko neurriak har ditzan.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko neurriak har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Mozioaren zioak

18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, euskararen estatusa Nafarroan arautu zuen. Lege horren ezinbesteko helburuetan "herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztea" (1.2.a) art.). Ezinbesteko helburu hori erdietsi ahal izateko honako hau ezarri zuen.

II. kapituluan, "Erabilpen ofiziala eremu euskalduneari" izenekoan, 15. artikuluan:

"1. Administrazio Publikoek eta izaera publikoko enpresek gaikuntza progresiboa sustatuko dute, eremu euskalduneari lan egiten duten langileek euskara erabil dezaten.

2. Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutan izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontuan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean."

III. kapituluan, "Erabilpena eremu mistoan" izenekoan, 17. artikuluan:

"Herritar guztiak euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoek zuzentzeko."

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatu Administrazioek honako hau egin dezakete:

a. Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztu.

b. Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendutzat baloratu."

Euskararen Foru Legeak ezarritakoa gorabehera, azken urteotan Nafarroako Gobernuak ez du nafarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko neurri eraginkorrik ezarri.

Horren erakusgarri dira Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari jaunak 2007an emandako datuak: 2000. urtetik 2007.era bitartean egindako lanpostu eskaintza publikoan, eremu mistoko 18 lanpostuk baino ez dute izan euskara ezagutu beharra (tartean Nafarroako Gobernuko Euskaltegiko irakasleak eta euskara teknikariak direla), eta 41 lanpostutan baino ez da euskara jakitea meritu gisa baloratu.

Horren erakusgarri da Nafarroako Gobernuak berak Espainiako Gobernuari emandako datuetan oinarriturik, egin daitekeen kalkulua: % 2ra ere ez dira iristen –Hezkuntzako irakasleak kenduta– euskara jakin beharra duten Nafarroako Gobernu-ko lanpostuak. Osasunbidea soilik hartuz gero, % 1era ere ez dira ailegatzen. Osasunbidean, non herritarraren eta osasun arloko profesionalaren arteko komunikazio eta hurbiltasuna hain garrantzitsuak diren zerbitzu publikoaren kalitaterako.

Osasunbidean, izan ere, azkeneko deialdietan euskara jakitea ez da meritu gisa ere baloratu izan eremu euskalduneko lanpostuetan. Horren adibidea da 547/2008 Ebazpena, non 367 lanpostuetatik bakar batean izan baita euskara jakin beharreak eta bitan baino ez da meritu gisa baloratu (ingelesa, frantsesa eta alemana lanpostu guztietarako baloratu izan den bitartean). Baina salatzea dena da Osasun Departamentuak deialdi horretan eremu euskaldunetan zerbitzua eman behar zuten 35 lanpostu izanda, horietatik 32 Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzara atxiki izatea, hizkuntza ondorioetarako, eremu mistora. Osasun Departamentuak hori egin du 32 lanpostu horiei Euskararen Foru Legeak eremu euskaldunerako ezarritakoa ez aplikatzearen. Legez euskara jakin beharra edo balorazioa bederen izan behar baitzuten. Hori egin da Legea saihestearren. Hau da, lanpostu horiek erabilera ofizialaren aginduetatik salbuetsi ahal izateko.

Beraz, Euskararen Foru Legeak bere 1.2 eta 15. artikuluetan ezarritakoa ez ohi da betetzen Osasunbideak eremu euskaldunetan dituen Osasun Etxeatako lanpostuak betetzeko orduan, ez eta Foruzaingoak Altsasun eta Elizondon zabaldu-tako komisaldegietako lanpostuak betetzeko orduan ere.

Hori horrela, 2008ko abenduaren 11n Europako Kontseiluko Aditu Batzordeak bere bigarren txostena eman zuen Estatuan Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean. Aipatu txostenak honako hauek jaso ditu, Ministro Batzordeak bere egin dituenak:

Autoridades locales y regionales (54-55. or.):

El Comité de Expertos insta a las autoridades competentes a tomar las medidas necesarias para asegurar que el vascuence se utiliza en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra que presta servicios a los residentes de la “zona vascofona”.

Servicios públicos (57-58 or.):

(...) El Comité de Expertos también alienta a las autoridades españolas a tomar medidas necesarias para incrementar el porcentaje de personal vasco parlante en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra.

Hori horrela, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroako herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko:

1. Euskararen Foru Legeak ezarritakoak eremu euskaldunetan zerbitzua eman behar duten lanpostu guztietan aplikatu ditzala, organikoki lanpostu horiek non atxikita dauden begiratu gabe.

2. Euskararen Foru Legeak ezarritakoak eremu mistoan zerbitzua eman behar duten lanpostuetan aplikatu ditzala lege horren 1.2.a artikuluan adierazitako xedea erdiesteko.

3. Europako Kontseiluko Aditu Batzordeak 2008ko abenduaren 11n emandako txostenean jasotako gomendioak, Europako Ministro Batzordeak bere egin dituenak, kontuan har ditzala eta Nafarroako Foru Komunitateko langileen artean euskara dakitenean portzentajea emendatzeko neurri zehatzak ezar ditzala.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean emandako txostena.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontuan har dezan Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean emandako txostena.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak arreta handiz aztertu du 2008ko abenduaren 11n Europako Kontseiluak argitaratutako txostena [ECRML (2008) 5], Espainiako estatuan Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean Europako Kontseiluak egindako bigarrena. Txosten horretan Europako Kontseiluko Aditu Batzordeak Estatuak EGHEK berrestean hartutako konpromisoen betetze maila aztertu eta horien betetzearen jarraipena egin du. Ministro Batzordeak betetze egoera baloratu eta, beharrezkoa jotzen badu, betetze maila hobetzeko gomendioak egiten dizkie estatuei. Gomendio horiek bere egiten ditu Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak. Hizpide dugun bigarren txosten honetan, adituek Nafarroari dagozkion zer

aipatu anitz eman dituzte. Horietako bat, ondoko hau, zerbitzu publikoen atalean:

Servicios públicos (57-58 or.):

“b la contratación y, en su caso, la formación de funcionarios y otros empleados públicos en número suficiente

446. El Comité de Expertos hace referencia a la descripción de la situación general relativa a la administración del Estado, la Administración de Navarra y los servicios públicos realizada en el primer informe de evaluación (párrs. 414-416). Alentó a las autoridades españolas a examinar la estructura de carrera y de formación establecida en la Administración Pública del estado, con miras a asegurar que un porcentaje adecuado del personal que trabaja en las dependencias de la Administración del Estado situadas en Navarra tiene el conocimiento necesario de la lengua vasca para utilizarla como lengua de trabajo. También alentó a las autoridades españolas a tomar las medidas necesarias para incrementar el porcentaje de personal vasco parlante en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra. Esto también fue objeto de una recomendación aprobada por el Comité de Ministros.

(...)

451. En lo que respecta a los servicios públicos, no se proporcionó información específica en el primer ni en el segundo informe periódico. El Comité de Expertos insta a las autoridades españolas a proporcionar la información pertinente en el próximo informe periódico. Teniendo en cuenta el elevado número de quejas registradas como consecuencia de la imposibilidad de recibir servicios en vascuence, el Comité de Expertos considera que no se han adoptado suficientes medidas apropiadas.

452. Por lo tanto, el Comité de Expertos considera que las medidas adoptadas son insuficientes y que este compromiso no se cumple en lo que respecta a la Administración General del Estado y los servicios públicos. Estima que el compromiso se cumple parcialmente en lo que respecta a la Administración Foral de Navarra.

El Comité de expertos alienta a las autoridades españolas a examinar la estructura de carrera y de formación establecida en la Administración Pública del Estado, con miras a asegurar que un porcentaje adecuado del personal que trabaja en las dependencias de la Administración del estado situadas en Navarra tiene el conocimiento necesario de la lengua vasca para utilizarla como lengua de trabajo.

El Comité de Expertos también alienta a las autoridades españolas a tomar medidas necesarias para incrementar el porcentaje de personal vasco parlante en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra.”

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak uste du Nafarroan ezarrita dauden Administrazioek (Foru Administrazioaz gain, Toki Administrazioak nola Estatuaren Administrazio Periferikoak ere) Nafarroako herritarrek aitortuta dituzten eskubideak nola begiratzen dituzten Nafarroako Parlamentuaren axola merezi duela.

Izan ere, 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, bere 3. artikuluan honela ezarri zuen:

“1. Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen.

2. Botere publikoek hizkuntza araua errespetatuko dute, Foru Lege honetan xedatutakoa eta hura garatzen duten xedapenen ondorio diren jarduketetan.”

Botere publikoak dioelarik Nafarroan ezarrita dauden Administrazio guztiak biltzen dira. Hau da, Euskararen Foru Legeak ezarritakoa Nafarroan zerbitzua ematen duten administrazio guztiak ukitzen ditu: Foru Administrazioa, Toki Administrazioa nola Estatuaren Administrazio periferikoa.

Beraz, haren eskumenekoa ez izanda ere, Erakunde Publikoen ardurakoa behar du izan Estatuaren Administrazio Periferikoak Nafarroan ematen duen zerbitzuak eta Administrazio horrek hizkuntza araua nola betetzen duen.

Hori horrela, honako mozio hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. kontuan har ditzala Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak 2008ko abenduaren 11n Espainiako estatuan Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean emandako txostena, bereziki Nafarroan aritzen diren Estatuko Administrazioko langileen euskara ezagutzaren emendatzearen inguruko gomendio.

2. Azter dezala Estatuarekin hitzarmena egiteko aukera honako hau ziurtatze aldera: Nafarroan zerbitzua ematen duten Estatuko Administrazio Periferikoko langileen arteko portzentaje egoki batek euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeko moduan jakin dezala.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan, oinezkoak segurtasunez ibili ahal izan daitezen Mendillorri, Burlata eta Sarriguren artean.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita egin beharreko jarduketak egin ditzan, oinezkoak segurtasunez ibili ahal izan daitezen Mendillorri, Burlata eta Sarriguren artean.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuak aspaldian iragarri zuen zenbait jarduera egiteko asmoa zuela, ahalbidetu-

ko dutenak pertsonak oinez igaro ahal izatea Sarriguren-Mendillorri-Burlata edo Atarrabia ondoko ingurabide eta biribilguneetan.

Denbora horretan, gune horiek biztanlez bete dira eta gaur egun erabat okupatuta daude, baina Nafarroako Gobernuak ez ditu abian jarri oinezkoen mugikortasun segurua ahalbidetuko duten elementu horiek.

Sarriguren eta Mendillorri artean edota Sarriguren eta Burlata artean mugitzeko beharra etengabea da; izan ere, herri horiek hezkuntza zerbitzuak, osasun arlokoak eta abar partekatzen dituzte. Mugitzeko behar horrek eguneroko arriskua dakar; izan ere, ez dago oinezkoentzako pasabiderik eta jendeak ez du ingurabide eta biribilguneak zeharkatu beste biderik, nahiz eta trafikoa trinkoa izan.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egin beharreko jarduerak lehenbailehen planifikatu eta egin ditzan, oinezkoak segurtasunez ibili ahal izan daitezen, pasaguneen edo lurpeko pasabideen bidez, Mendillorri, Burlata eta Sarriguren artean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako eta Tuterako eskualdeetan ere aplika dadin minbizia izatearen susmoa dagoenerako protokoloa, gaur egun Iruñerrian aplikatzen dena.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lizarrako eta Tuterako eskualdeetan ere aplika dadin minbizia izatearen susmoa dagoenerako protokoloa, gaur egun Iruñerrian aplikatzen dena.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasun laguntzaren ororenganatzea ezarri zuen, inor baztertu gabe, Nafarroako herritar guztientzat.

“Foru lege honetan definitutako ekitatearen printzipioak eragina du bai herritarren osasun mailari buruzko desberdintasunei dagokienez, bai osasun sisteman sartzeko baldintzen berdintasunari dagokionez. Osasun sistemako zerbitzuak hartzeari dagokionez, aukera berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen da. Printzipio hori, betiere, ez da mugatu behar zerbitzuak fisikoki hartze hutsera. Izan ere, printzipio horren gauzatzea administratiboki ere lortu beharra dago –foru legeak hori bermatzen du, hain zuzen ere, zerbitzu hori unibertsala bihurtuz–, bai eta finantzarioki ere.”

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du, ekitatearen eta berdintasunaren printzipioetan oinarrituta, Lizarrako eta Tuterako eskualdeetan bakarrik ere aplika dadin minbizia izatearen susmoa dagoenerako protokoloa, gaur egun Iruñerrian aplikatzen dena.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrazter dezan laguntza medikoko probak eta kontsultak egiteko garraio-zerbitzu kolektibo eta egokitua, Lizarra eta Tuterara soilik hartzen baititu.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berrazter dezan laguntza medikoko probak eta kontsultak egiteko garraio-zerbitzu kolektibo eta egokitua, Lizarra eta Tuterara soilik hartzen baititu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasun laguntzaren ororengatzea ezarri zuen, inor baztertu gabe, Nafarroako herritar guztientzat.

“Foru lege honetan definitutako ekitatearen printzipioak eragina du bai herritarren osasun mailari buruzko desberdintasunei dagokienez, bai osasun sisteman sartzeko baldintzen berdintasunari dagokionez. Osasun sistemako zerbitzuak hartzeari dagokionez, aukera berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen da. Printzipio hori, betiere, ez da mugatu behar zerbitzuak fisikoki hartze hutsera. Izan ere, printzipio horren gauzatzea administratiboki ere lortu beharra dago –foru legeak hori bermatzen du, hain zuzen ere, zerbitzu hori unibertsala bihurtuz–, bai eta finantzarioki ere.”

“Laguntza medikoko probak eta kontsultak egiteko garraio-zerbitzu kolektibo eta egokitua” izeneko dokumentuak, zeina baita mozio honen xedea, honela dio bere zioetan: “zerbitzua berdintasunaren eta ekitatean oinarritzen da, hau da, foru erkidegoko herritar guztiek eskubide bera dute eta baldintza beretan daude osasun zerbitzuak jasotzeko eta proba medikoak egiteko, kontuan hartu gabe non duten bizilekua, (...) eta berdintasunaren eta ekitatearen printzipioetan oinarrituta.”

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du berrazter dezan laguntza medikoko probak eta kontsultak egiteko garraio-zerbitzu kolektibo eta egokitua, Lizarra eta Tuterara soilik hartzen baititu; izan ere, zerbitzu horrek ez ditu betetzen 10/1990 Foru Legean ezarritako berdintasunaren eta ekitatearen printzipioak Foru Komunitateko herritar guztientzat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du beste proposamen bat egin dezan eta zerbitzua emateko irizpidea ez dadin izan erreferentziako ospitalea zein den, baizik eta beste batzuk, hala nola:

- a) Etxetik ospitalera dagoen kilometro kopurua.
- b) Familiaren irizpide sozioekonomikoak.
- c) Errenta eta beste batzuk.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du proposamena sar dezan Nafarroarako onetsi behar den zerbitzuen zorro berrian.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du azter dadin zerbitzu hori garraio-zerbitzuaren antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berrian sartzeko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da gizarte-enplegu babestua prestazio bermatutzat har dezan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita gizarte-enplegu babestua prestazio bermatutzat har dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gizarte zerbitzuak behar dituzten sektoreen eskakizun berrietara egokitzeko, beharrezkoa da zerbitzu horien garapen asmo handikoa egitea. Hori dela eta, krisiaren eraginez beharizan sozialak handitu egin diren honetan, eskubide batzuk, bereziki, handitu egin behar dira.

Behin eta berriz ikusten ari garenez, bai adierazpen publikoetan, bai Nafarroako Gobernuaren erantzunetan, enpleguaren galerak eragin zuzena du oinarrizko errenta bezalako gizarte-prestazioak eskatzerakoan.

Horrekin lotuta, enplegarritasun sistemak indartzea eta hobetzea neurri egokia da krisiaren ondorioetako batzuei aurre egiteko.

Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen gizarte-zerbitzuen zorroa. Zorro

horretan zenbait prestazio agertzen dira; horietako batzuk ziurtatuta daude eta beste batzuk, ez. Azken horien artean dago enplegu sozial babestua, zeinaren xedea baita laguntza ekonomikoa ematea interes kolektiboa duten eta irabazi asmorik ez duten proiektuei; hain zuzen, toki entitateek edota irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateek gizartearen bazterturik dauden pertsonen behin-behineko lan kontratuak egite aldera sustatutako proiektuei.

Eragile politiko, sindikal eta sozial guztiak ados gaude esaterakoan beharrezkoa dela zenbait mekanismo edo neurri ezartzea gure erkidegoan gora egiten ari den langabeziari aurre egiteko; izan ere, jada 40.000 dira langabezia dauden pertsonak.

Administrazio Publikoak baditu zenbait tresna halako egoerei aurre egiten saiatzeko, hala nola laneratze zentro eta enplegu zentro berezientzako kontratuen erreserba, kontrataziorako laguntzak edota gizarte-enplegua. Hori dela eta, azken neurri hori garrantzitsua da; izan ere, ahalbidetzen du lan merkatuan zailtasun gehien dituzten pertsonen gizarterako eta laneratzeko aukera izan dezaten.

Nafarroa Baik uste du gizarte zerbitzuak oinarritzko zerbitzuak direla herritar guztientzat eta eragin handia dutela gizartearen kohesioan. Hori dela eta, ez gara oinarrizkotzat jotzen ditugun prestazioak desberdin eta prestazio bermatuak eta ez-bermatuak bereiztearen aldeko. Horrela, gure helburua da eskubide horien aitorpena gainerako sistemetako eskubideekin pareka dadin, hau da, osasun- edo hezkuntza-sistemetako eskubideekin.

Hori guztia dela-eta, hau erabakitzea proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du gizarte enplegu babestua prestazio bermatutzat har dezan eta lehenbailehen alda dezan ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen erregelamenduak eta aginduak gara ditzan.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen erregelamenduak eta aginduak gara ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Parlamentuko ekimen baten bidez, Eskubide Sozialen Gutun Baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatu zen. Aldaketa hori adostasunez egin zen eta bertan zenbait erregelamenduren garapena aurreikusten zen. Zehazki, 4.3, 5.1 eta 5.2 artikuluetan eta lehenengo xedapen gehigarrian, lehenbailehen zehaztu beharreko zenbait erregelamendu garapen aurreikusten dira.

Horrekin lotuta, lege aldaketak berak ahalbidetzen du, egoera pertsonalek hala gomendatzen badute, oinarritzko errenta ematearen gaineko zen-

bait baldintza, epe eta muga modu malguan interpretatzea.

Gure ustez, erakundeek ekintza beti izan behar da dinamikoa, malgua eta unean uneko egoerara zehaztasunez eta zorroztasunez, baina gizarte-grinaz, egokitzeko gai. Horrexegatik, krisialdi honek, zeinak gizartean dituen ondorioak argi ikusten baitira gizarte prestazioetan, erantzun politiko azkarra eta garai berezi honetara egokitutakoa eskatzen du. Gizartean premiazkoak diren egoeren aurrean, erantzuna azkarra eta malgua izan behar da.

Hori dela eta, eskura dauden mekanismo sozialak indartu behar dira, eta oinarritzko errenta da horietako bat, prestazio hori salbamen-ohol bat bezala agertu baita.

Ez dago esan beharrik enpleguaren galerak, agerikoa denez, oinarritzko errentaren eskatzaile kopuruaren areagotzea ekarri duela. Egoera, ikusirik langabezian dauden pertsona kopuruaren areagotzea, ez dirudi egoerak hobera eginen duenik; hori dela eta, oinarritzko errentaren eskaerak gora egiten jarraituko du.

Hori guztia dela-eta, hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du hilabeteko epean presta ditzan Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Legea aldatzeko uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legean aipaturiko erregelamendu eta agindu guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen du ahalik eta malgutatsun handienarekin interpreta dezan Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Legea, gaur egungo egoera ekonomiko eta sozialari ahalik era erantzun egokiena emate aldera.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-sistemako zailtasun bereziko lanpostuak katalogatzeko irizpideak prestatu ditzan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hezkuntza-sistemako zailtasun bereziko lanpostuak katalogatzeko irizpideak prestatu ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Ikastetxeetako irakasleen egonkortasuna da irakaskuntzaren kalitatea hobetu ahal izateko faktore garrantzitsuenetako bat, egonkortasunik gabe zaila baita ikastetxeko hezkuntza proiektua betetzea.

Faktore hori gure hezkuntza sisteman urtetan planteatu izan den arazoa izan da. Zenbait erkidegotan badira lanpostuak zailtasun berezikotzat hartzen direnak, betetzeko zailak baitira. Duela zenbait urte, Nafarroan ere erabiltzen zen sailkapen hori. Kalifikazio horren barruan sartzen diren irakasle lanpostuek zenbait inguruabar dituzte, zaila egiten dutenak lanpostu horiek eskuratzea edo bertan irautea.

Irizpide desberdinak erabiltzen dira lanpostuak zailtasun berezikotzat hartzeko. Horietako bat da ingurune geografikoa (ikastetxera iristeko zailtasunak...). Lanpostu horien sailkapenarekin batera, zenbait pizgarri ezartzen dira. Pizgarri horiek ez dira beti ekonomikoak izaten. Pizgarri horiek lagungarriak izan daitezke lanpostu horiek ez daitezkeen izan hain zailak betetzeko, eta, horrela, irakasleen behin-behinekotasuna eta mugikortasuna murrizten da ikastetxe kaltetuenetan eta irakasle taldeen lan-dinamika hobetzen da.

Horrekin lotuta, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko itunaren (2007-2011) 3. atalean –irakasle taldeen egonkortasunari eta irakasleen mugikortasunari buruzkoa–, aipatzen da azterlan bat, zailtasun bereziko lanpostuen katalogo bat osatzeko asmoa. Bestalde, aurreko itunean ere aipatzen zen asmo hori. Bi itunetan jasota agertzeak adierazten du, alde batetik, garrantzitsua dela, eta, bestetik, urte hauetan guztietan oso gutxi aurreratu dela.

Halako lanpostuen katalogazioak, irakasleen lan baldintzak hobetzeaz gain, eragin zuzena du egoera hori egokitu zaien ikasleen hezkuntzan; izan ere, gaur egun, askotan, ikasleak ezin du irakaslearen jarraitasun gutxieneko batez gozatu, eta, hori dela eta, ikasturtero dauka ikastetxe desberdin batean egotearen sentipena.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irizpideak prestatu ditzan zailtasun handiko lanpostuen katalogoa egite aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du betetzeko zailak izateagatik zailtasun handikoak diren lanpostuen sailkapen bat egin dezan. Sailkapen horrekin batera pizgarri ez-ekonomikoak ezarriko dira, bai funtzionarioentzat bai behin-behineko irakasleentzat.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola garraiorako eta egoitzarako laguntzarako kontusail bat sor dezan.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskola garraiorako eta egoitzarako laguntzarako kontusail bat sor dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 5.5 artikuluan esaten denez, "hezkuntza sistemak erraztu behar du eta administrazio publikoek sustatu behar dute herritar guztiek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko etaparen mailako prestakuntza eskuratzerara irits daitezen". Bestalde, lege horretako 80. artikuluan ondokoa esaten da: "administrazio publikoek konpentsaziozko ekintzak gauzatu behar dituzte egoera ahulean dauden pertsonekin, taldeekin eta lurralde esparruekin, baita horretarako baliabide ekonomikoak bideratu ere". Ez dira hor amaitzen Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak egiten dituen aipamenak ikasle guztientzat beharrezkoa eta galdagarria den aukera berdintasunari buruz. Hala, aipamen guztietan azpimarratzen da baliabideak emateko eta aukera

berdintasuna gauzatzeko beharra, bai eta edozein faktoreren ondorioz, geografikoa barne, sortzen diren desberdintasunak ekiditeko beharra ere.

Nafarroan, bereziki kezkarria da Pirinioetako haranetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko etapetako ikasleen egoera. Onartzen dugu Hezkuntza Departamentuak ezin duela bere gain hartu zerbitzuen eskaintza egokia egitea, baina bidegabea eta aukera berdintasunaren printzipioaren erabat aurkakoa da ez izatea inolako laguntza berezirik garraiorako edo egoitzarako, gainerako ikasle guztientzat, oro har, daudenez gain. Askotan, ikasle horiek laguntza eskatu behar izaten diote familiari ikasketekin jarraitu ahal izateko, baina hori ez da beti posible. Beste askotan egoitzetara joan behar izaten dute. Foru erkidegoan badira eraikinak, garai batean egoitzak izan zirenak eta birgaitu ahalko litezkeenak, edota, ikasle kopuru murrizta dela-eta ez badago horretarako aukerarik, erabiltzen diren egoitzetan posturen bat gorde liteke, adibidez Fuerte del Príncipe-Larrabide gazteen egoitzan.

Pirinioetako planean jasota dago hezkuntza arretoa hobetzeko neurriak hartzeko beharra. Zaila da ikustea zeintzuk diren orain arte hartutako neurriak egoera hobetzeko. Gure ustez, ezin dugu jarraitu zain egoten eta etengabe atzeratzen berdintasuna lortzen laguntzen duten jarduerak.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garraiorako eta egoitzarako laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat egin dezan Pirinioetatik datozen ikasleek egoitza izan dutela dezaten ahalbidetze aldera.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

**Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Tuñón jaunak Senatuan izandako jarrera politikoa gaitzesten du, eta Senatuko Mahaiaren erabakiak bete ditzan premiatzen du.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Tuñón jaunak Senatuan izandako jarrera politikoa gaitzesten du, eta Sena-

tuko Mahaiaren erabakiak bete ditzan premiatzen du".

Mozio hori 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko.**

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2009ko apirilaren 24an, honako ebazpen hau eman zuen:

Erakunde honen plantilla organikoan aurreikusirik dago Ganberaren zerbitzuko auditore lanpostu bat, eta lanpostu hori betetzeari dagokionez, Nafarroako Comptos Ganberako Idazkari Nagusiak proposamen-txostena eman du. Halaber, Erakundearen Zerbitzu Juridikoek, kontu-hartzaitzakoe eta administratzaileak aldeko txostenak eman dituzte. Horiek horrela, proposamen-txostena ikusirik,

### **EBATZI DUT:**

**Lehenbizikoa.**– Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia eranskinetako oinarriekin bat etorriko da.

**Bigarrena.**– Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezela xedatzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

## **Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko**

Hona hemen deialdiaren oinarriak:

### **1. oinarria.** Arau orokorrak.

1.1. Deialdiaren xedea da Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzea.

1.2. Lekualdatze lehiaketan honako hauek izanen dira arau: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta lekualdatze lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuko lanpostuak betetzeko Erregelamendua, 2007ko

otsailaren 26an onetsia (2007ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, apirilaren 11koa). Horien osagarri aplikatuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdiaren bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, auditore lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Bere eginkizunak Nafarroako Comptos Ganberari buruzko Foru Legearen 16. artikuluan ezarri dira. Hona hemen eginkizun horietako batzuk: Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren kontuak eta kudeaketa ekonomikoa kontrolatzea, Ganberako lehendakariari fiskalizazio txostenak proposatzea, baita fiskalizazio eginkizunean lortuko diren ondorioak proposatzea ere, eta Comptos Ganberako lehendakariak agintzen ahal dion beste edozein.

1.4. Lanpostuak A mailakoak dira eta horri dagozkion ordainsariak izanen dituzte, eta Nafarroako Comptos Ganberaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Deialdiko lanpostu kopuruari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio, alegia, epaimahaiak lehiakideen zerrenda (lortutako puntuazioaren arabera) deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

### **2. oinarria.** Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartzen ahalko dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio fun-

tzionarioek, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) A mailako funtzionarioa izatea.
- b) Titulu hauetakoren bat izatea: merkataritza irakaslea, zuzenbideko lizentziatura, ekonomia edo enpresa zientzietako lizentziatura.
- c) Auditore lanpostu baterako izendatua izatea.

Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betiko esleituko zaie.

2.2. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak hautapen prozedurak iraun bitartean bete beharko dituzte. Hautapen prozedura izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

### 3. oinarria. Eskaerak.

3.1. Lekualdatze lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide baten bidez, eredu ofizialarekin bat (deialdiaren II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, halakorik badute.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskaerari:

- Deialdiaren 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten ziurtagiriak.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskaerak Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira, Nafarroako Comptos Ganberako Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

### 4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu

eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrendak onartutako izangaien izen-deiturak erakutsiko ditu.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, horiek zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Izangai bakarra ere onartzen ez bada, lehiaketa eman gabe utziko da.

**5. oinarria.** Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduna.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketako epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua:

– Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusia.

Ordezkoa: José Luis Ezquerro Royo jauna, Nafarroako Comptos Ganberako legelaria.

Epaimahaikideak:

– María Asunción Olaechea Estanga andrea, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Ordezkoa: Jesús Muruzabal Lerga jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

– Ignacio Cabeza Del Salvador jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea, langileen batzordearen ordezkari, epaimahaiko idazkari arituko dena.

Ordezkoa: Gemma Angélica Sánchez Lerma andrea, Nafarroako Comptos Ganberako legelaria, langileen batzordearen ordezkari.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.



5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta epaimahaiburuak kalitatezko botoa izanen du.

5.4. Deialdiaren oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoak ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

#### **6. oinarria.** 8.-Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta frogatutako merezimenduak deialdiaren I. eraskinean azaldu baremoari jarraituz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak, lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskaera aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.4. Lehiatzaileen puntuazioan berdinketarik izaten bada, administrazio publikoen zerbitzuan antzintasunik handiena dutenen alde joko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiakide zaharrenaren alde egingen da.

6.5. Merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa, Nafarroako Comptos Ganberako iragarki oholean, eta bost eguneko epea ezarriko du interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alega dezaten.

**7. oinarria.** Gainditu dutenen zerrenda ordenatua eta lanpostuen esleipena.

7.1. Deialdiko 6.5 oinarrian aipatzen diren erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den ebazpena emanen du. Halaber, lehendakariak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

7.2. Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak puntuaziorik altuena lortzen duen izangaiari esleituko dio lanpostua, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

#### **8. oinarria.** Lanpostua hartzea.

8.1. Izangaiak hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

#### **9. oinarria.** Aurkeztutako agiriak.

9.1. Izangaiak, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik. Agirien itzulketa berariaz eskatu beharko dute eta horretarako hiru hilabeteko epea izanen dute. Esleipenari buruzko ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hiru hilabetera hasiko da epe hori.

9.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak eramane gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak eramane ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

#### **10. oinarria.** Errekurtsuak.

Deialdiaren oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsua, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua paratzen ahalko da, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

## I. ERANSKINA

## Merezimenduak baloratzeko baremoa

1.– Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak.

Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak baloratzeko, puntu bat emanen zaio, urteko, deialdia argitaratzen den egunean onetsitako antzinatasunari. Urte kopurua osoa ez bada, proportzioan dagokion puntuazioa emanen da. Kontzeptu honi dagokionez gehienez ere 25 puntu emanen dira.

Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu bada, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

2.– Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

Atal horretan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira. Honako atal honi gehienez ere 15 puntu emanen zaizkio.

a) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 7 puntu.

Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barruan antolatuak sartuko dira.

Baloratu beharreko ikastaroetan, ikastorduen zatikiak proportzionalki banatuko dira.

Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitatez kanpoak, ez dira letra honetan baloratuko.

b) Kongresu edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo sari-tutako zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatuetan lanak argitaratzea, baita itzulpe-

nak argitaratzea ere: 4 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen.

c) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatzea eta/edo halakoetan irakasle gisa parte hartzea: gehienez 4 puntu, haien iraupenaren araber epaimahaiak baloratu beharrekoak.

3.– Beste merezimendu batzuk.

Epaimahaiak beste merezimendu batzuk ere balioetsiko ditu (5 puntu gehienez), esaterako, deialdian exijitzen denaz bestelako titulu eta espezialitate akademikoak: puntu bat emanen da goi mailako titulu bakoitzeko eta 0,60 puntu erdi mailako titulu bakoitzeko. Doktore maila edo lizentziatura ere balioetsiko dira: puntu bat emanen da doktore mailarengatik eta 0,20 puntu lizentziaturarengatik. Halaber, euskara eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere balioetsiko da: 1,10 puntu EGA tituluarengatik edo baliokidearengatik, euskararen kasuan, eta puntu bat Europar Batasuneko hizkuntza bateko goi mailako tituluarengatik. Ikastaro osoen kasuan, 0,22 puntu emanen dira euskarako ikastaro oso bakoitzeko eta 0,20 puntu Europar Batasuneko beste hizkuntza ikastaro oso bakoitzeko.

## II. ERANSKINA

## Eskabide eredia

Izen-deiturak: .....,  
adina: ....., NAN zenbakia: ....., helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): .....,  
telefono zenbakia: ....., adeitasunez,

Honako hau azaltzen dut:

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2009ko apirilaren 24an emandako ebazpenaren berri izan dut; horren bidez auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetze-ko dei egiten da, eta hartan parte hartu nahi dut.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horrenbestez,

Eskatzen dut:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen frogagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2009ko .....aren .....(e)an.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakari jauna

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2008ko abenduaren 31koa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero presatutako duela urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera Legebiltzarreko funtzionarioen zerrenda. Bertan funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera agertuko dira.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2008ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda dela eta eginiko proposamena, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuan 2008ko abenduaren 31n lanean ari ziren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

<i>IZEN-ABIZENAK</i>	<i>MAILA</i>	<i>GRADUA</i>	<i>LANPOSTUA</i>	<i>ADMINISTRAZIO EGOERA</i>
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>				
DÍEZ LAGO, P.	A	6	Legelari nagusia	Egoera aktiboan
<b>Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza</b>				
ALFARO ERVITI, C.	C	7	Administrari burua	Egoera aktiboan
LASECA ESCUER, J.R.	C	6	Administraria	Egoera aktiboan
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>				
ESPARZA OROZ, M.	A	6	Legelari nagusiaren ondokoa	Egoera aktiboan
BERMEJO GARDE, M.	A	6	Legelaria	Zerbitzu berezietan
PULIDO QUECEDO, M.F.	A	6	Legelaria	Egoera aktiboan
LANPOSTU HUTSA	A		Legelaria	
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>				
CERRO PAÚL, F. J. DEL	B	7	Zerbitzu Orokorretako burua	Egoera aktiboan
LARRAÑETA LIZARRONDO, M. V.	B	7	Teknikari diplomatua	Egoera aktiboan
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	2	Administrazio kudeaketako teknikaria	Egoera aktiboan
LOYOLA ERASO, P.	A	5	Informatikako goi mailako teknikaria	Egoera aktiboan
ARANAZ JIMÉNEZ, E.	B	3	Informatika sistemetakoko erdi mailako teknikaria	Zerbitzu-eginkizumetan
MARZAL PARRA, M <sup>a</sup> A.	B	4	Informatika sistemetakoko erdi mailako teknikaria	Egoera aktiboan
ARDAIZ EGÜÉS, A.	C	6	Administraria	Zerbitzu berezietan
BEAR SANZ, C.	C	5	Administraria	Egoera aktiboan
DÍAZ DE RADA TURUMBAY, J.C.	C	7	Administraria	Egoera aktiboan
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria *	
LEZÁUN JUÁNIZ, M.	C	5	Administraria	Zerbitzu berezietan
EQUIZA MAQUIRRIÁIN, J. M.	C	5	Ofizial teknikaria	Egoera aktiboan
<b>Gelazain nagusia</b>				
ANSORENA URRIZA, A.	D	5	Gelazain nagusia	Egoera aktiboan
ADOT LOPERENA, M.A.	D	5	Gelazaina	Egoera aktiboan
ARIZCUREN REY, M. Á.	D	6	Gelazaina	Zerbitzu berezietan
FADRIQUE GARDE, I.	D	6	Gelazaina	Egoera aktiboan
ENECOIZ SEGURA, F.	D	4	Gelazaina	Zerbitzu berezietan
MARTÍNEZ ORDUÑA, M. J.	D	4	Gelazaina	Egoera aktiboan
MONEO MARTÍNEZ, M.I.	D	4	Gelazaina	Egoera aktiboan
TORRES IBARROLA, J. M.	D	5	Gelazaina	Egoera aktiboan
URMENETA MARÍN, O.	D	5	Gelazaina	Egoera aktiboan
VENTURA ARBILLA, A.I.	D	6	Gelazaina	Egoera aktiboan
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	

<i>IZEN-ABIZENAK</i>	<i>MAILA</i>	<i>GRADUA</i>	<i>LANPOSTUA</i>	<i>ADMINISTRAZIO EGOERA</i>
<b>PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA</b>				
GIL MARTÍNEZ, C. J.	A	6	Prentsako burua	Egoera aktiboan
ARANA BAREÑO, A.	A	3	Itzultzailea	Egoera aktiboan
ARISTEGUIETA OQUÍÑENA, X.	A	3	Itzultzailea	Egoera aktiboan
IRIARTE CILVETI, M.	A	3	Itzultzailea	Egoera aktiboan
IRIZAR APAOLAZA, A.	A	3	Itzultzailea	Egoera aktiboan
LANPOSTU HUTSA	A		Itzultzailea	
MENA GARCÍA, T.	B	3	Protokoloko teknikaria **	Egoera aktiboan
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, B.	C	5	Administraria	Egoera aktiboan
MIGUÉLIZ GARCÉS, I.	C	5	Administraria *	Egoera aktiboan
ARANAZ MARTÍ, C.	C	5	Transkriptorea	Egoera aktiboan
HUARTE CAMPIÓN, A. I.	C	6	Transkriptorea	Egoera aktiboan
PALMA ROMERO, F.	C	5	Transkriptorea	Egoera aktiboan
SÁENZ GARCÍA, M. C.	C	5	Transkriptorea	Egoera aktiboan
SANTIAGO SEGOVIA, I. DE	C	4	Transkriptorea *	Egoera aktiboan
SEVINÉ RUIZ, M.	C	2	Transkriptorea	Egoera aktiboan
<b>ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J.	A	6	Artxibo eta Liburutegiko burua	Egoera aktiboan
ITURRI VILLANUEVA, A.	B	3	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Egoera aktiboan
ALEGRÍA GOÑI, M.C.	B	3	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Egoera aktiboan
MITXELENA ENBIL, I. A.	C	4	Administraria *	Egoera aktiboan
BORDA OLAGÜE, CARMEN	C	6	Administraria	Egoera aktiboan
<b>KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA</b>				
ZULET RECALDE, F.	B	6	Kontu-hartzailtzako burua	Egoera aktiboan
VIDÁN ASTIZ, L.	B	2	Administrazio kudeaketako teknikaria	Egoera aktiboan
LANPOSTU HUTSA	B		Administrazio kudeaketako teknikaria	
FERNÁNDEZ GELOS, M <sup>a</sup> V.	C	6	Administraria	Egoera aktiboan
PÉREZ DE RADA ARISTEGUI, M. E	C	7	Administraria	Egoera aktiboan
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>				
BALDUZ GIL, J.	B	1	Administrazio kudeaketako teknikaria	Egoera aktiboan
ECHEVERRIA UHALTE, C.	C	7	Administraria	Egoera aktiboan
LAINEZ GIL, M.	C	6	Administraria	Egoera aktiboan
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria	
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	

(\*) Euskarazko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(\*\*) Ingeleseko titulua nahitaezkoa duen lanpostua